



PRENTSA DOSSIERRA | DOSSIER DE PRENSA

USTEKABE FANFARREA

BITTOR SARASKETA 7, 3

20600 EIBAR (GIPUZKOA)

TLF: 649933512

ustekabe@gmail.com

www.ustekabe.com



Condomeko banda jaialdian izango da Ustekabe

Ustekabek Condom (Armagnac, Frantzia) bisitatuko du asteburuan, bertako banden jaialdian parte hartzeko

Kantutegi arruntaz gain, lau ikuskizun prestatu ditu Eibarko fanfarreak. Musika eta dantza uztartuko dituzte.

INFO+: 2 or

Ustekabe participará en el festival de bandas de Condom

Ustekabe asistirá el sábado a Condom (Armagnac, Francia), para participar en un festival internacional de bandas

La fanfarre ha preparado, además de su repertorio habitual, cuatro espectáculos que combinan música y baile

INF+: pag 5



Ustekabe, Condomeko banda jaialdian

Condom (Armagnac, Frantzia) bisitatuko du Ustekabek asteburuan, bertako banda jaialdia dela-eta.

Lau ikuskizun labur prestatu ditu Ustekabek, jaialdirako.

Ustekabe fanfarreak Condomeko (Armagnac, Frantzia) Banda Jaialdian parte hartuko du datorren asteburuan. Estreinako aldiz izango da Ustekabe gisa horretako jaialdi batean, nazioarteko beste hainbat bandarekin batera. Kale-animazioaz gain, lau mikroikuskizun prestatu dituzte musikari eibartarrek.

Jaialdian 2.000 musikari inguruk parte hartzen dute, eta Europa osoko taldeak izaten dira jaialdiak irauten duen hiru egunetan zehar. Besteak beste Espainiako, Frantziako, Belgikako eta Portugaleko 35 banda izango dira jaialdian, eta tartean izango da Ustekabe. “Guretzat ohorea izugarria da talde horien artean gu onartuak izatea eta 40.000 bisitari dituen jaialdi bateko kartelean egotea” adierazi dute fanfarreko arduradunek.

Euskal tradiziodun ikuskizuna

Larunbatean eta igandean kale-animazioan arituko da Ustekabe. Baina igandean modu berezian ere jo beharko du: 4 eszenatokitara igo beharko dira Eibarko fanfarrekoak. Eszenatoki bakoitzean 12 minutu inguruko ikuskizuna egin beharko dute.

Horietatik ikusgarrienetako bat, Ustekabekoen esanetan, “Podium Tradition” delakoan egin behar dutena da. Izan ere, euskal dantza tradizionala eramango dute Condomera. Horretarako, Kezka dantza taldeko Oier Araolazaren laguntza izan dute: “berak lagundu digu ikuskizuna prestatzeko urrats nagusiak ematen, baita koreografiarako ildo nagusiak ezartzen”. Bestalde, Carlos Sánchez Barbak kantuak moldatu ditu txarangarako eta Potpourri Tradizionala izenburupean bildu. “Bien laguntzarekin, uste dugu emaitza zinez ikusgarria izango dela, eta eskerrak eman beharrean gaude Araolazari” diote Ustekabekoek.

Gainontzeko ikuskizunei dagokienez, batetik “Podium Musical” delakoa dago. Bertan, musika bandek erakutsi beharko dute bere musika-maila zenbaterainokoa den. Txaranga batentzat ohikoa ez den kantutegia daramate bertara Ustekabekoek esan dutenez: “gure kantutegitik kanpoko abestiak daramatzagu. Lan handiagoa eskatu du horrek eta espero genitzakeen mugak gainditu ditugula esan genezake” diote.



Beste ikuskizun bat “Podium Animation” izenekoa da. “Ez dauka zerikusirik aurrekoarekin. Bertan, garrantzitsua izan arren, musikalitateak baino garrantzia handiagoa du ikusentzuleekin elkarreragiteak. Ondorioz, ikuskizun txiki bat prestatu dute. Laugarren eszenatoki bat ere badago, orokorra.

Aspaldiko asmoa

Duela 14 urte sortu zuten Ustekabe Eibarko Musika Eskolako 16 ikaslek. Orduetik, dozenaka lagun sartu eta irten dira fanfarrean, eta gaur egun 18 musikarik osatzen dute, 16 eta 27 urte bitartekoak. Badira hainbat urte nazioarteko banda jaialdi batean parte hartzeko gogoia zegoela, baina aurrean heldu diote erronkari. “Kurtso hasieran ideia aurrean eramateko asmoa inoiz baino serioago hartu, eta gabonetan izena eman genuen Condomeko jaialdian”, azaldu dute. “Otsailean baieztatu ziguten Ustekabe onartua izan zela jaialdian, eta hilabeteotan gure ensaio-planeari kontuan izan dugu hori”.

Fanfarrekoen hitzetan, ez da erraza horrelako jaialdi baterako prestatzea. “Taldea asko daude, oso ondo prestatuak, eta guk ere maila ona erakutsi nahi dugu bertan. Taldekideak oso gazteak gara, eta ez da erraza agendak bateratzea. Ikasketak, lana, kirola, beste musika taldeak... izan ere gutako askok Eibarko Musika Bandan edo talde txikiagoetan ere hartzen dugu parte” nabarmendu dute. Jaialdiaren data ere “aldrebes xamarak” direla aipatu dute. “Azterketak direla-eta, gutako batzuk ezingo dira bertan izan. Pena izugarria da, urtean zehar lana ondo egin dutelako herrian geratuko direnek, baina hala egokitu zaigu”, tamaldu dute. “Gainera, Eibar futbol taldeak Ipuruan jokatuko du gu han gauden bitartean... adi egongo gara bertan golak ospatzeko!” diote musikari gazteek, “baina azkenean zirt edo zart egin behar genuen eta duela zenbait hilabete, aurrera egitea erabaki genuen. Izan ere, azterketak eta kirol-lehiaketetako finalak beti izaten dira garaiotan, eta datorren urtean antzeko arazoak izan genitzazkeen”.

Ustekabek etengabe berritzen dugu bere erreperitorio zabal eta landua: kalejirak, pasodobleak, maxikanadak, euskal kantu tradizionalak, euskal rocka, nazioarteko kantu ezagunak estilo desberdinetakoak.... Gainera, partiturak bereziki neurritan egiten edota konpontzen dituzte, eta musika ikasketak egin dituzte kide guztiek. Jaialdirako kantutegia zabaltzeko dute, eta txaranga ohikoak ez diren kantuak gehitu. Dantzaldi tradizionala, kalejira eta pasodoble berriak, Pirates of the Caribbean edo Blues Brothers, esaterako.

Irteera ostiral arratsaldean egingo dute. Nekazal turismo batean kontzentrazioa egin, eta larunbat goizaldean 5 orduko autobus bidaia egingo dute Condomera. Bertan, arratsaldetik eta goizeko 5ak arte, kale-animazioan arituko dira. Igande arratsaldean, berriz, kale-animazioaz gain, lau eszenatokitako ikuskizunak ere burutu beharko dituzte.



Ondo hornituta

Musika instrumentuez gain, beste hainbat gauza ere badaramatzate fanfarrekoek. Erropari dagokionez, fraka txuri berriak egin dituzte, eta baita bordatutako txapela gorriak ere. Horrez gain, Kezka Dantza Taldeari esker, dantzariak bestelako apaingarriak ere izango dituzte.

Bestalde, estandarte edo bandera berria egin dute: “Iaz plastikozkoa egin genuen proba gisa, eta horrekin gustora ibili ondoren, berria egin dugu, bordatua”. Baina ez hori bakarrik, baita inprimategian egindako kartel zabal bat, 3,5 metrokoa. Bertan, Ustekaberen tipografiaz gain, Eibarko hainbat marrazki azaltzen dira: Ibarkurutzeko iturria, Urkusukoa, San Andres eta Arrateko elizak, Arrate Irratiaren antena, Untzagako dorrea, Urkusukoetako bat, Ipuruako futbol zelaia, eta fanfarrea bera kalejira egiten. Diseinua Jose Antonio Azpilikueta artista eibartarrarena da, Supermendikute komikiaren egilearena, hain zuzen.

“Jose Antonio Azpilikueta proposamena egin genionean zeharo inplikatu zen gurekin eta oso lan txukuna egin digu. Egia esan, laguntza eskatu diegun pertsona guztiek oso ondo erantzun digute, eta esker hitzak baino ez dauzkagu” diote.

Ezagutzera emateko 5.000 pegatina egin dituzte, frantsesez, eta beste horrenbeste txartel kontaktu-datuekin. Astean zehar azken ensaioak egiten dihardute, herriko leku desberdinetan. Astelehenean, adibidez, Matsariako industrialdean egin zuten.



Ustekabe, en el festival de bandas de Condom

Ustekabe visitará este fin de semana Condom (Armagnac, Francia), con motivo de un festival internacional de bandas

Han preparado 4 espectáculos

La fanfarre Ustekabe participará este fin de semana en el festival de bandas de Condom (Armagnac, Francia). Será la primera ocasión en la que la fanfarre eibarresa participe en un festival de esta índole, junto a varias bandas internacionales. Además de la animación callejera, los músicos eibarreses han preparado cuatro microespectáculos.

En total serán 2.000 los músicos que participarán en el festival de bandas de Condom, con la participación de 35 bandas, y asistirán aproximadamente 40.000 personas. Las bandas provienen mayoritariamente de España, Francia, Bélgica y Portugal. “Para nosotros es un auténtico honor haber sido aceptados entre esas bandas y figurar en el cartel de un festival que acoge 40.000 visitantes”, afirman los responsables de la fanfarre.

Espectáculo tradicional vasco

El sábado y el domingo Ustekabe trabajará con su habitual animación callejera. Sin embargo, el domingo se le suma la subida a 4 escenarios en los que harán sendos microespectáculos de 12 minutos.

Uno de los más llamativos, afirman desde la fanfarre, se trata del que llevarán a cabo en el denominado “Podium Tradition”. Y es que llevarán a Condom una representación de danza vasca, para lo cual han contado con la colaboración del miembro del grupo de danzas Kezka, Oier Araolaza. “Él nos ha marcado las líneas maestras para preparar el espectáculo, así como indicarnos las lecciones básicas para poder trabajar la coreografía”, indican. Por su parte, Carlos Sánchez Barba ha adaptado las partituras para txaranga y las ha recogido bajo el título *Potpourri Tradizionala*. “Con el trabajo de ambos, creemos que el resultado va a ser espectacular y estamos en la obligación de agradecer la inestimable colaboración de Oier Araolaza y Carlos Sánchez Barba”, afirman los rectores de la agrupación musical.

En lo que respecta al resto de espectáculos preparados, está por una parte el “Podium Musical”. En el mismo, las bandas han de mostrar su nivel de musicalidad. Desde Ustekabe anuncian que el repertorio preparado no es habitual en charangas: “llevamos



canciones no incluidas en nuestro repertorio, lo cual nos ha obligado a trabajar más y a superar los límites que creíamos tener”.

Otro de los escenarios se trata del denominado “Podium Animation”. “No tiene nada que ver con el anterior, ya que aunque la musicalidad sigue siendo importante, la atención se centra en la interacción con los espectadores. Por tanto, hemos preparado una pequeña animación que creemos será de su agrado. Y por último, hay un cuarto escenario que es más general”, explican.

Una aspiración que viene de lejos

La fanfarre Ustekabe se fundó hace 14 años por 16 estudiantes de la Escuela de Música. Desde entonces, docenas de músicos se han incorporado y han abandonado las filas de la agrupación. Hoy en día son 18 los que componen la base de la banda, con edades comprendidas entre los 16 y los 27 años. La intención de participar en un festival internacional se remonta a hace una década, aunque hasta ahora no se había estudiado seriamente la posibilidad. “A principio de curso planteamos la opción y decidimos, ilusionados, asumir el reto. Así que en Navidades nos inscribimos y en febrero recibimos la noticia de que la organización del festival había aceptado a Ustekabe. Desde entonces, el festival ha estado presente en el plan de ensayos”, dicen.

Desde la txarangara eibarresa hablan de las dificultades de preparar un festival de estas características: “hay muchísimos grupos muy bien preparados, y nosotros también queremos llevar un alto nivel. Los músicos somos muy jóvenes, y no es fácil cuadrar agendas entre estudios, trabajo, deporte y otros grupos de música en los que tocamos... no en vano, muchos de nosotros tocamos también en la Banda de Música de Eibar o en otros grupos”, subrayan. Las fechas tampoco ayudan: “a muchos nos pilla en plenos exámenes y no todos vamos a poder ir. Es una pena, porque los que se quedan en casa han trabajado muy bien para prepararlo todo”, lamentan. Tampoco pasa desapercibido el final de la Liga de Fútbol: “justo coincide un partido del Eibar en Ipurua mientras estamos allí tocando... ¡estaremos atentos para celebrar los goles!”, bromean los jóvenes músicos. “Pero a fin de cuentas hace unos meses teníamos que tomar una decisión, ya que tanto los exámenes como el calendario deportivo iban a ser impedimento todos los años”.

Ustekabe renueva continuamente su repertorio, compuesto por pasacalles, pasodobles, mexicanadas, música tradicional vasca, rock, éxitos internacionales... además, preparan las partituras a medida para la agrupación. No sólo eso: el repertorio ha sido ampliado para su participación en el festival: el potpurri tradicional para bailar, Piratas del Caribe, Blues Brothers... son algunas de las cosas que Ustekabe hará sonar en Condom, además de incorporar nuevos pasacalles y pasodobles.

El viaje de salida comenzará el viernes por la tarde, que acudirán a una casa rural donde hará una concentración para partir de madrugada hacia Armagnac. Allí, desde la tarde y



hasta las cinco de la madrugada, tratarán de animar las calles como mejor saben hacer, y el domingo harán más de lo mismo además de los cuatro espectáculos preparados.

Bien equipados

Si bien es cierto que los instrumentos de música son su principal herramienta de trabajo el equipamiento será mucho más completo: en cuanto a vestuario, han adquirido nuevos pantalones blancos para todos, así como boinas rojas bordadas. Además, gracias a la colaboración del grupo de baile Kezka, los dantzaris contarán con complementos añadidos.

Por otra parte, han confeccionado un nuevo estandarte: “el año pasado decidimos hacer la prueba con uno de lona, y tras haber comprobado su uso, hemos decidido hacer uno bordado”. Pero no sólo eso, ya que también están imprimiendo una pancarta de 3,5 metros, diseñada por el artista eibarrés José Antonio Azpilikueta, autor de Supermendikute. En su dibujo aparecen, bajo la tipografía de Ustekabe, diversos iconos eibarreses: las fuentes de Ibarkurutze y Urkizu, las iglesias de San Andres y Arrate, la antena de Arrate Irratia, las torres de Untzaga y Urkizu, el Ayuntamiento, así como el campo de fútbol de Ipurua cantando un gran GOOOOL. Y, cómo no, la propia fanfarre.

“Cuando propusimos a Jose Antonio Azpilikueta que nos diseñara la pancarta se implicó a tope con nosotros y nos ha hecho un trabajo precioso. La verdad es que todas las personas a las que hemos pedido colaboración han ayudado y sólo tenemos palabras de agradecimiento para todos”, cuentan.

Por último, llevan al festival 5.000 pegatinas en francés, así como otras tantas tarjetas de visita con los datos de contacto. A lo largo de esta semana están ensayando en diferentes puntos de Eibar. El lunes y el martes por la tarde, por ejemplo, se pudo escuchar a la fanfarre en el polígono industrial de Matsaria.

USTEKABE FANFARREA

Bittor Sarasketa 7, 3
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

TLF: 649933512
ustekabe@gmail.com
www.ustekabe.com